



UDAL ERANTZUKIZUNPEKO ZERBITZUAK LIZITATZEAN LANBIDE-PROFILA DEFINITZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak, zioen azalpenean, gizarte langileak hartzen ditu, **gizarte hezitzaileekin** batera, Gizarte Zerbitzuetako oinarritzko profesionaltzat, azken horien direlarik gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen arduradunak.

"Horrela, gizarte-langileei berez dagozkien eginkizunei gehitu behar zaizkie gizarte-hezitzaileak aspalditik garatzen ari diren gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzu eta prestazioetatik eratorritakoak; gizarte-hezitzaile horiek gizarte-langileekin batera osatuko lukete Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarritzko kidego profesionala. Proposatutako ikuspegi komunitariotik bideratuta, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, funtsean, esku-hartze sozialaren oinarritzko elementu bezala ulertu behar da, prozesu-izaera baitu; horrek, definizioz, laguntza-eginkizunak eta bidaltze-eginkizunak gainditu eta lan-esparru hezitzaile harremanezkoa ezartzen du helburu hauek lortzeari begira: subjektuak autonomia handiagoa eta bizi-baldintza hobekak izatea, bere garapenean dituen testuinguru desberdinetara egokitzea eta zailtasunak gainditzea" (12/08 Legea - . 31845 orria)

- Legeak gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeari buruz ematen duen definizioa bat dator, funtsezko alderdietan, erantzukizuna duten instituzioek emandakoekin; Euskal Herriko Unibertsitateak, arlo akademikoan, bere titulazioaren gidan; eta GHEE-CEESPVk, lanbidearen egikaritzearen aldetik, bere dokumentu profesionalizatzaileetan adierazitakoaren osagarri gisa, bertan sartuta gizarte eta hezkuntzako profesionalen zeregina orientatzen duten oinarritzko hiru elementu:
 - Esku-hartzearen prozesu-izaera, aldaketarako hezkuntza eta gizarte prozesuak sortzen dituelarik
 - Esku-hartzea funtsean erlazionalak diren erremintak oinarri hartuta garatzea, elkarrekintzako hezkuntzako lan markoan ezarritik
 - Hezkuntzaren asmoa, pertsonen autonomia handiagoa lortzea eta bizi baldintzak hobetzea
- 185/2015 Dekretuko udal erantzukizunpeko zerbitzuen zorroan gizarte eta hezkuntza esku-hartzea ere sartzen da eta [Gizarte- hezkuntza arloko esku hartzea zorroari buruzko dekretuan](#). [Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema](#). [Gizarte Hezitzaileak zerbitzuen garapenean](#) dokumentuan identifikatu eta jaso dira gizarte hezitzaileak zeintzuetan sartu behar direnak. Horiek 1.1., 1.3, 1.5, 1.7, 1.8, 1.9. zenbakietan daude sartuta.
- Gizarte hezkuntzaren lanbideak Estatuko lanbide elkargo guztiek adostu eta onetsitako funtzioak definituta ditu eta [Funtzio eta kompetenzien katalogoan](#) jasota daude, eta hori da lanbidearen garapen teknikorako erreferentzia.
- Era berean, lanbideak [Deontología Kodea](#) du eta honek deontologia printzipio eta arauak ezartzen ditu gizarte hezitzaileari bere ekintza eta jardunean orientatzeko eta bere lanbidearen kalitatea hobetzeko.
- Gizarte hezitzaileek burututako gizarte- eta hezkuntza-arloko lana ([EHUko Gizarte Hezkuntza graduoko ikasketa plana](#) - [Deustuko Gizarte Hezkuntza graduoko ikasketa plana](#)) Gizarte Hezkuntzako unibertsitate graduak mugatuta dator; prestakuntza berezitua da, etorkizuneko profesionalak 240 kredituko prestakuntzaz gaitzen dituen. Kreditu horietatik 42 prestakuntza praktikokoak dira (hirugarren eta laugarren mailan) eta gizarte eta hezkuntza arloko programa edo zerbitzuetan garatzen direnak. Gradua amaitzeko, ikasketa amaierako lana egiten dute. Prestakuntza hau bat dator Etengabeko Ikaskuntzarako Prestakuntzen Europar Esparruaren (EQF) 6. mailarekin.

Horregatik guztiagatik, zure eskumenekoak diren zerbitzuen lizitazioetan gizarte hezitzaileen lanbide profilaren definizioa errazte aldera, honako hau proposatzen dugu:

- ✓ **Profila argi definitzea, Gizarte Hezitzaile izena, ez besterik, erabilita**
- ✓ **Gizarte Hezkuntzan diploma edo gradua eskatzea, edo lanbide elkargo baten gaitze-agiria (Etengabeko Ikaskuntzarako Prestakuntzen Europar Esparruan (EQF) 6. mailari dagokiona, eta zehaztea komeni da)**
- ✓ **Prestazio nagusiaren garapena argi agertzea: gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea**
- ✓ **Gizarte eta hezkuntza izaerako funtzio eta kompetentziak ondo definituta egotea**
- ✓ **Lanbidearen deontologia kodea berariaz aipatzea, eta beronen aplikazioa betekizun izatea**

Hainbat dokumentazio ere erantsi dugu. Horietara iristeko, dokumentu honetako estekak erabil daitezke, bide elektronikoz bidalitakoa edo GHEE-CEESPVren web orrian kontsultatuta: www.ceespv.org

- [Gizarte- hezkuntza arloko esku hartzea zorroari buruzko dekretuan. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema. Gizarte Hezitzaileak zerbitzuen garapenean](#) Dokumentu hau Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen zorro dekretuaren garapenaren jarraipenerako Batzordeak, GHEE-CEESPVk eta EHUko HFA Fakultateak eraturakoak, egina da, eta gizarte hezitzaileek burutuak izan beharko luketen zerbitzuak jasotzen ditu, gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen prestazioa sartzeko baita beroietan.
- [La actual ley vasca de servicios sociales. Universalización de servicios y consolidación de la atención socioeducativa y de los educadores y educadoras sociales en las respuestas a la ciudadanía](#): artikulua hau Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen zorro dekretuaren garapenaren jarraipenerako Batzordeak egina da. EAEko gizarte zerbitzuei buruzko legeetan barrena ibilbide bat egiten du. Alde batetik horien bilakaera adierazten du eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 azken legerari eginiko ekarpen teknikoan Elkargoaren nahiz gizarte hezitzaileen zeregina nabarmentzen du.
- ASEDEsek (Gizarte hezitzaileen estatu mailako elkarteak) eginiko [Profesionalizaziorako Dokumentuak](#) eta Gizarte Hezkuntzako Elkargo Nagusiak berretsitakoak, honako hau jasotzen du:
 - Gizarte hezkuntzaren definizioa
 - Gizarte hezitzaileen zeregin eta gaitasunak
 - Gizarte hezitzaileen deontologi kodea
- [Zorroari buruzko Dekretuaren Jarraipen Batzordearen jardueren eta ekintzen txostena \(ceespv.org\)](#) Honek GHEE-CEESPV eta HEFA-EHU-UPVk eraturako batzorde honek garaturako ekintza guztiak jasotzen ditu, eta bertan sartuta daude arestian aipaturako dokumentuak eta gai honekin lotutako beste dokumentu interesgarri batzuk ere.

FORU ERANTZUKIZUNPEKO ZERBITZUAK LIZITATZEAN LANBIDE-PROFILA DEFINITZEKO KONTUAN **HARTU BEHARREKOAK**

- Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak, zioen azalpenean, gizarte langileak hartzen ditu, **gizarte hezitzaileekin** batera, Gizarte Zerbitzuetako oinarritzko profesionaltzat, azken horien direlarik gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen arduradunak.

"Horrela, gizarte-langileei berez dagozkien eginkizunei gehitu behar zaizkie gizarte-hezitzaileak aspalditik garatzen ari diren gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzu eta prestazioetatik eratorritakoak; gizarte-hezitzaile horiek gizarte-langileekin batera osatuko lukete Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarritzko kidego profesionala. Proposatutako ikuspegi komunitariotik bideratuta, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, funtsean, esku-hartze sozialaren oinarritzko elementu bezala ulertu behar da, prozesu-izaera baitu; horrek, definizioz, laguntza-eginkizunak eta bidaltze-eginkizunak gainditu eta lan-esparru hezitzaile harremanezkoa ezartzen du helburu hauek lortzeari begira: subjektuak autonomia handiagoa eta bizi-baldintza hobekitzeko, bere garapenean dituen testuinguru desberdinetara egokitzea eta zailtasunak gainditzea" (12/08 Legea - . 31845 orria)

- Legeak gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeari buruz ematen duen definizioa bat dator, funtsezko alderdietan, erantzukizuna duten instituzioek emandakoekin; Euskal Herriko Unibertsitateak, arlo akademikoan, bere titulazioaren gidan; eta GHEE-CEESPVk, lanbidearen egikaritzearen aldetik, bere dokumentu profesionalizatzaileetan adierazitakoaren osagarri gisa, bertan sartuta gizarte eta hezkuntzako profesionalen zeregina orientatzen duten oinarritzko hiru elementu:
 - Esku-hartzearen prozesu-izaera, aldaketarako hezkuntza eta gizarte prozesuak sortzen dituelarik
 - Esku-hartzea funtsean erlazionalak diren erremintak oinarri hartuta garatzea, elkarrekintzako hezkuntzako lan markoan ezarritik
 - Hezkuntzaren asmoa, pertsonen autonomia handiagoa lortzea eta bizi baldintzak hobetzea
- 185/2015 Dekretuko foru erantzukizunpeko zerbitzuen zorroan gizarte eta hezkuntza esku-hartzea ere sartzen da eta [Gizarte- hezkuntza arloko esku hartzea zorroari buruzko dekretuan](#). [Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema](#). [Gizarte Hezitzaileak zerbitzuen garapenean](#) dokumentuan identifikatu eta jaso dira gizarte hezitzaileak zeintzuetan sartu behar direnak. Horiek 2.2. (2.2.1.- 2.2.2.- 2.2.3.), 2.3. (2.3.2.), 2.4. (2.4.1.- 2.4.2.- 2.4.3.- 2.4.4.- 2.4.5.- 2.4.6.), 2.7. (2.7.2.1.- 2.7.3.1.- 2.7.4.- 2.7.5- 2.7.6.1.- 2.7.6.2.) zenbakietan daude sartuta.
- Gizarte hezkuntzaren lanbideak Estatuko lanbide elkargo guztiek adostu eta onetsitako funtzioak definituta ditu eta [Funtzio eta konpetentzien katalogoan](#) jasota daude, eta hori da lanbidearen garapen teknikorako erreferentzia.
- Era berean, lanbideak [Deontologia Kodea](#) du eta honek deontologia printzipio eta arauak ezartzen ditu gizarte hezitzaileari bere ekintza eta jardunean orientatzeko eta bere lanbidearen kalitatea hobetzeko.
- Gizarte hezitzaileek burututako gizarte- eta hezkuntza-arloko lana ([EHUko Gizarte Hezkuntza graduiko ikasketa plana](#) - [Deustuko Gizarte Hezkuntza graduiko ikasketa plana](#)) Gizarte Hezkuntzako unibertsitate graduak mugatuta dator; prestakuntza berezitua da, etorkizuneko profesionalak 240 kredituko prestakuntzaz gaitzen dituena. Kreditu horietatik 42 prestakuntza praktikokoak dira (hirugarren eta laugarren mailan) eta gizarte eta hezkuntza arloko programa edo zerbitzuetan garatzen direnak. Gradua amaitzeko, ikasketa amaierako lana egiten dute. Prestakuntza hau bat dator Etengabeko Ikaskuntzarako Prestakuntzen Europar Esparruaren (EQF) 6. mailarekin.

Horregatik guztiagatik, zure eskumenekoak diren zerbitzuen lizitazioetan gizarte hezitzaileen lanbide profilarren definizioa errazte aldera, honako hau proposatzen dugu:

- ✓ **Profila argi definitzea, Gizarte Hezitzaile izena, ez besterik, erabilita**
- ✓ **Gizarte Hezkuntzan diploma edo gradua eskatzea, edo lanbide elkargo baten gaitze-agiria (Etengabeko Ikaskuntzarako Prestakuntzen Europar Esparruan (EQF) 6. mailari dagokiona, eta zehaztea komeni da)**
- ✓ **Prestazio nagusiaren garapena argi agertzea: gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea**
- ✓ **Gizarte eta hezkuntza izaerako funtzio eta kompetentziak ondo definituta egotea**
- ✓ **Lanbidearen deontologia kodea berariaz aipatzea, eta beronen aplikazioa betekizun izatea**

Hainbat dokumentazio ere erantsi dugu. Horietara iristeko, dokumentu honetako estekak erabil daitezke, bide elektronikoz bidalitakoa edo GHEE-CEESPVren web orrian kontsultatuta: www.ceespv.org

- [Gizarte- hezkuntza arloko esku hartzea zorroari buruzko dekretuan. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema. Gizarte Hezitzaileak zerbitzuen garapenean](#) Dokumentu hau Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen zorro dekretuaren garapenaren jarraipenerako Batzordeak, GHEE-CEESPVk eta EHUKo HFA Fakultateak eraturakoak, egina da, eta gizarte hezitzaileek burutuak izan beharko luketen zerbitzuak jasotzen ditu, gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen prestazioa sartzan baita beroietan.
- [La actual ley vasca de servicios sociales. Universalización de servicios y consolidación de la atención socioeducativa y de los educadores y educadoras sociales en las respuestas a la ciudadanía](#): artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioen zorro dekretuaren garapenaren jarraipenerako Batzordeak egina da. EAEko gizarte zerbitzuei buruzko legeetan barrena ibilbide bat egiten du. Alde batetik horien bilakaera adierazten du eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 azken legerari eginiko ekarpen teknikoan Elkargoaren nahiz gizarte hezitzaileen zeregina nabarmentzen du.
- ASEDESek (Gizarte hezitzaileen estatu mailako elkarte) eginiko [Profesionalizaziorako Dokumentuak](#) eta Gizarte Hezkuntzako Elkargo Nagusiak berretsitakoak, honako hau jasotzen du:
 - Gizarte hezkuntzaren definizioa
 - Gizarte hezitzaileen zeregin eta gaitasunak
 - Gizarte hezitzaileen deontologi kodea
- [Zorroari buruzko Dekretuaren Jarraipen Batzordearen jardueren eta ekintzen txostena \(ceespv.org\)](#) Honek GHEE-CEESPV eta HEFA-EHU-UPVk eraturako batzorde honek garaturako ekintza guztiak jasotzen ditu, eta bertan sartuta daude arestian aipaturako dokumentuak eta gai honekin lotutako beste dokumentu interesgarri batzuk ere.